

NOTA DE PRENSA

EUSKARA SAILAK ETA BILBOKO EUSKALTEGIEK EUSKARAREN IKASKUNTZA SUSTATU GURA DUTE

- **Bilbotarrak euskara kurtsoetan izena ematera animatu nahi dituzte**
- **Pasa den ikasturtean hiriko euskaltegietan izena eman zuten ikasleen kopurua %3,2 igo zen, 10.900 matrikulaturekin**
- **17 euskaltegi daude Bilboko zortzi barrutietan**

Bilbon, 2009ko irailaren 9an. Ikasturte berria hasiko da, eta testuinguru horretan Bilboko Udaleko Euskara Sailak eta hiriko euskaltegiek 2009-2010 euskara kurtsoetan izena ematera animatu nahi dituzte herritar guztiak. Euskaltegietan matrikula egiteko epea irailaren bigarren hamabostaldian hasiko da.

Honen helburua da euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzea euskaltegien jardunaren bitartez, hizkuntzaren ikaskuntza, erabilera eta normalizaziorako euskarri garrantzitsuenetarikoak baitira.

Pasa den ikasturtean hiriko euskaltegietan izena eman zuten ikasleen kopurua %3,2 igo zen, 2007-2008 kurtsoan matrikulatu ziren 10.550etik 2008-2009an 10.900ra igo baitzen Bilboko zortzi barrutietan zabaldua dauden 17 euskaltegietako ikasle kopurua. Esan daiteke auzo gehienetan euskaltegiren bat badagoela.

Euskaltegiak

Kalitatezko hizkuntza-prestakuntza eta profesionaltasuna dira zentro hauen zutaberik sendoenak; izan ere, euskararen ezagutza

eta erabilera indartzeko ahaleginak egiten dituzte eskola orduetatik kanpo antolatzen dituzten aisialdi eta kultura jardueri esker.

Horrezaz gain, euskaltegien %10ak, gutxi gorabehera, autoikaskuntzaren bidetik jotzen dute euskara irakasteko eta ikasleei malgutasun handiagoa eskaintzeko.

Egungo ikasleen tipologiari dagokionez, ikasle gehienak emakumeak dira; pasa den urtean matrikulatuen %70 emakumeak ziren. Adinari erreparatzen badiogu, ikusten dugu 16 urtetik hasita adin tarte desberdinetako pertsonak apuntatzen direla eta ikasleen proportzioa antzerakoa dela adin tarte guztietan, bai gazteen taldean, bai helduen taldean.

Bestetik, derrigorrezko irakaskuntzan hartutako euskara mailari esker, gero eta ikasle gehiago hasten dira erdiko eta goiko mailetan.

Euskaltegien zerrenda

1. Barrutia (Deusto)

- **Larrako AEK** (Larrakatorre 24)
Tel. 94 447 02 24
- **Euskal Irakaslegoa-Deustuko Unibertsitatea** (Unibertsitateen etorbidea 24)
Tel. 94 475 49 72
- **Matxintxu AEK** (Ramón y Cajal 8)
Tel. 94 475 22 33

3. Barrutia (Txurdinaga-Otxarkoaga)

- **Txurdinaga AEK** (Arbidea, 21)
Tel. 94 411 76 56

4. Barrutia (Begoña)

- **Santutxu AEK** (Padre Pernet, 9)

Tel. 94 473 14 60

Tel. 94 473 14 60

5. Barrutia (Ibaiondo)

- **Bilbo Zaharra-Elkarlan** (Correo 8)

Tel. 94 415 82 92

- **Lizardi AEK** (Perro 1)

Tel. 94 416 82 00

6. Barrutia (Abando)

- **BAI & BY** (Urkixo 22)

Tel. 94 470 18 57

- **Gabriel Aresti-Elkarlan** (Gran Vía 24)

Tel. 94 423 75 91

- **Indautxu AEK** (Urkixo 88)

Tel. 94 441 34 74

- **Labayru Ikastegia** (Aretxabaleta 1)

Tel. 94 443 76 84

- **Mikelats** (Aiala 1)

Tel. 94 415 32 95

- **Mondragon Lingua** (Buenos Aires 7)

Tel. 94 661 34 67

- **Ulibarri** (Gardoki 3)

Tel. 94 416 24 72

7. Barrutia (Errekalde)

- **Juan Mateo Zabala-Elkarlan** (Gordoniz 22)

Tel. 94 422 13 88

- **Urtats AEK** (Kirikiño 22)

Tel. 94 421 13 04

8. Barrutia (Basurtu-Zorrotza)

- **Zorrotza AEK** (Zalbidea 7)

Tel. 94 441 49 20